

ARESOKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA

Areson, 2015ko maiatzaren 22an, arratsaldeko 18:30etan eta Aresoko udal aretoan, ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivite Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

Organua : Batzarra

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2015/05/22

Ordua: 18:30

Lekua: Udalaren Batzar Aretoa

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Ur Alguero Chivite

Xabier Domingo Zubillaga Uranga

M^a Asunción Arratibel Onsalo

Mikel Baraibar Garmendia_

Iker Barandarain Caballero_

BERTARATU EZ DIRENAK

Uxue Goikoetxea Saizar

Jokin Barandarain Tellechea

IDAZKARIA

Ione Miren Lazkoz Maiza

GAI ORDENA:

- 1.- Aurreko batzarreko aktaren onarpena.
- 2.-2014ko Aresoko udaleko eta Hirigintza Elkarteko kontuen hasiera bateko onespina.
- 3.- DGT eta Aresoko udalaren artean sinatu beharreko hitzarmenaren onespina.
- 4.- Mozioak:-“ Torturaren aurkako eta giza eskubide guztien aldeko mozioa.”
 .-“ Bideko Mitxingorria oroimenaren aldeko herrien koordinakunde Nafarrak Aresoko Udalari aurkezten dion mozioa, Mola eta Sanjurjoren gorpuzkinak lekuz aldatzeko eta frankismoaren apologia salatzeke.”
 .- “Hassanna Aalia asiloa ematearen aldeko adierazpena”.
 .- “Erregistro zibila.”
- 5.-Eskaera eta galderak.
- 6.- Denetarik.

Esan-eginak eta erabakiak

Alkate jaunak bilera hasi eta beratu publikoa izendatua, arratsaldeko 18:35 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako en quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

1.-Aurreko batzarretako akta.

Aurreko batzarreko akta alkatearengatik irakurria da eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1.- 2014ko abenduaren 12ko ohiko batzarreko akta onartzea.

2.- 2014ko Aresoko udaleko eta Hirigintza Elkarteko kontuen hasiera bateko onespina.

Aresoko Alkatea den Ur Alguero Chivitek, Aresoko udaleko eta Aresoko Hirigintza Elkarteko 2014. urteari dagozkion kontuak batzarrerako aurkeztuak ez izanaren arrazoiak zentzu izan diren adierazten du.

2014. urteko kontuak toki administrazioko departamentuko ekonomia teknikarien laguntzaz itxi nahi dira kontabilitatea ongi egin dagoela ziurtatu dezaten. Ikusirik teknikari hauek egindako aholkuak, 2014. urteko kontuetako bankuak berdinduak egon arren ezin izan dira itxi aurrekontu kanpoko partidak, gizarte segurantza, beza, ... berdinduak ez daudelako eta eragiketa hau inoiz egin izan ez delako.

Honetaz gain badira hainbat asentu gaizki kontabilizatuak izan direnak eta zuzendu beharra daudenak eta baita programa informatikoak gaizki egin dituen eragiketa ugari ere.

Guzti hau dela eta 2014. urteko kontuak ongi zuzendu bitartean eta behar den eran kontabilitatea jarri bitartean, ezin izanen dira 2014. urteko kontuak onartu.

Beraz azalpen hau jaso ondoren, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

2.1.- 2014. urteko kontuen puntua eztabaidatua ez izatea.

2.2.-Toki administrazioko departamentuko teknikariek kontabilitatea bere osotasunean zuzendu eta egunena jarri bitartean 2014.urteko kontuak onartuak ez izatea.

3.- DGT eta Aresoko udalaren artean sinatu beharreko hitzarmenen onespena.

DGT eta FEMP-aren artean badira bi hitzarmen; batetik, 2006. urteko hitzarmenaren baitan pertsona batek trafikoko bulego nagusira joan beharrik ez izatea helbide aldaketa egiteko, erroldatuta dagoen herrian bertan izapide hau egin ahal izatea eta aukera ematea erroldatua den heinean bere ibilgailuen helbidea ere errolda berriko helbidera bideratzeko.

Bestetik, 2009. urtean oinarrizko alde biko hitzarmena, bide segurtasunean oinarrituta. Bi hitzarmen hauek urtebeteko iraupena izanen dute sinatzen diren unetik aurrera eta urte betez luzatu ahal izanen dira kontraktorik adierazten ez bada.

Azalpen hauek emanda eta hitzarmenak irakurriak, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

3.1.- 2006ko helbide aldaketa hitzarmena eta 2009ko oinarrizko alde biko bide segurtasunean oinarritutako hitzarmenak onartzea.

3.2.- DGT eta Udalaren arteko hitzarmena sinatzeko alkatea ahalordetzea.

3.3.-Erabaki honen berri DGTari ematea.

4.- Mozioak:

4.1.-“ Torturaren aurkako eta giza eskubide guztien aldeko mozioa.”

Aresoko alkateak mozioa bere osotasunean irakurtzen du:

TORTURAREN AURKAKO ETA GIZA ESKUBIDE GUZTIEN ALDEKO MOZIOA

Otsailaren 13an 34 urte bete ziren Joxe Arregi hil zenetik Polizia Nazionalaren eskutan 9 egun eman ondoren. Harrez geroztik tortura urtetik urtera salatu dugu, kalean eta erakundeetan. Zentzu horretan, Euskal Herrian milaka eta milaka herritarrek salatu dute tratu txarrak jasan izana Estatuko polizia indarren eskutik.

Gainera, aurten jakin dugu Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Erresumaren aurkako kondena-epai berri bat eman duela euskal herritar batek salatutako torturak ez ikertzeagatik. Epai honekin, Giza Eskubideen Auzitegiak dagoeneko bost kondena-epai eman ditu Espainiako Estatuaren aurka, euskal herritarrek aurkeztutako tortura-salaketak ez ikertzeagatik.

Horregatik guztiagatik, eta Nafarroan eta Euskal Herrian oso testuinguru garrantzitsu batean gaudela aintzat hartuta, non oraina eta etorkizuna eraiki nahi dugun giza eskubideen errespetuan oinarrituta, Aresoko Udalak erabaki du, mozio honen bitartez:

1. Komisarietan tratu txarrak ahalbidetzen dituzten egun indarrean dagoen legedia behingoz eta behin betiko indargabetzeko eskatzea, Lege Antiterrorista indargabetu eta atxilotuen inkomunikazioa bertan behera utziaz.
2. Funtsezkoa den eskubide honen urraketa pairatu duten pertsonen sufrimendua aitortu eta erreparatzea.
3. Auzitegi Nazionalari eskatzen dio tortura eta inkomunikazioa pairatu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judizial guztiak berrikusi eta bertan behera utz ditzala.
4. Akordio honen berri ematea.

4.2.-“ Bideko Mitxingorria oroimenaren aldeko herrien koordinakunde Nafarrak Aresoko Udalarari aurkeztzen dion mozioa, Mola eta Sanjurjoren gorpuzkinak lekuz aldatzeko eta frankismoaren apologia salatzeko.”

Aresoko alkateak mozioa bere osotasunean irakurtzen du:



"BIDEKO MITXINGORRIA" OROIMENAREN ALDEKO HERRIEN KOORDINAKUNDE NAFARRAK ARESOKO UDALARI AURKEZTEN DION MOZIOA, MOLA ETA SANJURJOREN GORPUZKINAK LEKUZ ALDATZEKO ETA FRANKISMOAREN APOLOGIA SALATZEKO.

"Oroimenaren aldeko Herrien koordinakundea" ekimenean parte hartzen dugunok, indarrean dagoen legeria (Oroimen Historikoari buruzko Legea, Nafarroako Ikurrei buruzko Legea eta 2013ko azaroko

Oroimen Historikoari buruzko Foru Legea) behin eta berriz urratzen dela ikusirik, gure kezka eta ezinegona adierazi nahi dugu. Hori dela eta:

- Aresoko Udalera jo dugu, bertako udal taldeen bitartez, gogora ekartzeko Nafarroan oraindik frankismoaren gorespina eta apologia egiten dela. Hain zuzen, frankismoaren erregimenaren eta haren erantzuleen zigorgabetasuna gogorarazten digun apologia. Denbora gehiegi pasa da, Demokrazia eta legezko Errepublikaren gobernu defendatu zutenek, eta berauen ondorengook, gure bizitzetan eta inguruetan kolpezale eta hiltzaileen presentziaren ezarpena jasaten segi dezagun.

KONTUAN HARTURIK:

- "Gurutzearen Zaldunak" kofradiako ekitaldiak, gaur egun ere, kriptan egiten dituztela, eta kriptan hau, zenbait soto bezala, Elizarena dela.
- Uztailaren 19arekin, kolpisten altxamendua eta kriptan lurperatuta daudenak gogoratu eta goraiatzeko, elizkizun bat egiten dela urtero. Lurperatutakoaren artean, Sanjurjo eta Mola jeneral kolpistak daude.
- Gaur egun ondoko lege hauek indarrean daudela: 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, Oroimen Historikoari buruzkoa, eta 33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.
- Salatzen ditugun ekitaldi hauek kolpe militarren eraildakoak eta biktima oro iraintzen dituztela, baita berauen senitarrekoak eta, oro har, nafar guztiak ere.
- "Hildakoen monumentoa" delakoaren kriptan egiten duten ospakizun hau terrorismoaren apologia hutsa dela, apologiatzat krimena edo hiltzaileak goratzea hartzen bada behintzat.
- Aipatutako ekitaldiak kolpismoaren bortizkeria eta krimenak goraiatzeko egiten direla, eta ez daukatela zerikusirik gure errespetua merezi duten erlijioarekin eta fedearrekin.
- Gizartearen gehiengo frankismoaren kontrakoa izan eta frankismoaren sinbologia kentzearen aldekoa dela.
- Frankismoaren sinbologia ken dezatela eskatzeko eskubidea dugula, ez legeak agintzen duelako bakarrik; baizik eta, eta batez ere, gizartearen gehiengoak halaxe eskatzen duelako.

Orain arte azaldutakoa aintzat harturik, eskatzen dugu ondoren zehazten diren erabakiak har daitezela.

ARTZAPEZPIKUTZARI ONDOKOA ESKATU NAHI DIOGU:

- "Hildakoen monumentu" izeneko kriptan (bertan Mola eta Sanjurjo jeneral kolpisten gorpuzkinak gordetzen dira) galaraz dadin 1936ko altxamendu kolpistari lotutako edozein ospakizun egitea, nahiz erlijiosoa izan, nahiz beste mota batekoa izan.
- Kriptan dauden jeneralen gorpuzkinak leku pribatu batera eramateko.
- Kripta horretan dauden aipamen, grabatu eta altxamendu militarra gogorarazten duen oro bertatik ken daitezela.
- Salatutako ekitaldiak egiten jarraitzen den bitartean, galaraz dakiola Gurutzearen Zaldun boluntarioen kofradiari kripta hori erabiltzea.

LABURBILDUZ:

Erakundeetako ordezkariak haxe galdatzen diegu: gerra eta errepresioaren biktimen eskubidea izanik, hau da, Egia, Justizia eta Ordaina izateko eskubidea, erabaki hauek bere egin ditzatela.

“Bideko Mitxingorria” Oroimenaren aldeko Herrien Koordinakunde Nafarra.

Areson, 2015eko maiatzaren 22an.

Guzti hau kontutan izanik, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

“Bideko Mitxingorria” Oroimenaren aldeko Herrien Koordinakunde Nafarrak adierazitako erabaki guztiak bereak egitea.

4.3.- “Hassanna Aalia asiloa ematearen aldeko adierazpena”.

Aresoko alkateak mozioa bere osotasunean irakurtzen du:

HASSANNA AALIA ASILOA EMATEAREN ALDEKO ADIERAZPENA

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan.

2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian ikasketa-beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarrari babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoarrek kartzelatuko luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrak 25 zibil sahararren kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra zigorra ezartzen dio (errebeldian aitortuta).

Hainbat nazioarteko legelari ospetsuek epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari (Genevako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabetasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoarrak egunero Herri Sahararra menderatze aldera eragiten duen bidegabekeria salatzen.

2015eko urtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko 15 eguneko epea ematen diotela.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Aresoko Udal Batzak honako ERABAKIAK hartu ditu:

- Hassanna Aaliari sostengua eta elkartasuna adieraztea.
- Espainian dagokion autoritateari eta Barne Ministroari gai honetan parte hartzea: espainiar estatuaren lurraldea uzteko agindua bertan behera utziz eta Hassanna Aaliaren asilo eskaera berriro aztertuz.
- Marokoko Gobernu Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari denean gure kezka azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea eskatzen dugu.
- Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatzea; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.
- Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:

- **ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA**

Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid

- **ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI**

La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid

- **KANPO HARREMANETARAKO ESPAINIAR MINISTROARI**

Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid

- **ESPAINIAKO BARNE MINISTROARI**

Paseo de la Castellana, 5. 28046 – Madrid

- **NAZIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI**

245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017

- **ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN:**

Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid

- **EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTEARI.**

Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas

- EUOPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI.

Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas

- MAROKOK ESPAINIAN DUEN ENBAXADARA.

c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.

4.4 .- “Erregistro zibila.”

Aresoko alkateak mozioa bere osotasunean irakurtzen du:

ARESOKO UDALARI AURKEZTEKO MOZIOA

Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitatasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea.

Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du.

Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanaz, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

1.- 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.

2.- Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan.

Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.

3.- Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab...

Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jardura izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.

4.- Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.

5.- Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.

6.- Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta, Aresoko udalaren Osoko Bilkurari eskatzen dizkiogu:

1.- Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.

2.- Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.

5.-Eskaera eta galderak.

Aztertu beharrekoa aztertuta, 19:45 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

